

## MARIAREN BIOTZ ZORAGARRIARI.



Laketu<sup>1</sup>-idazu Ama gozoa zure kolkooan,  
 Erleak lora politen kopan legez bardin,  
 Zure amore eztitsuaren zumoa edanda,  
 Amodiozko abai gozo bat daidan egin;  
 Zure biotza dalako zuri, dalako gorri,  
 Dalako bera lirioa ta bera jazmin.

Bene benetan, ill eder au da parebagea,  
 Kardinen kantanak diño pozez: «da mayatza»  
 Errechiñolen soñueteak: «ill galanta da»  
 Uso sotillak urruetaka: «da malatsa»<sup>2</sup>  
 Malatsagoa askozaz baña; Maria jaku  
 Darakuskuzun biotz aiñ gozo, aiñ apatza.<sup>3</sup>

Kerizpechoa udan guttiz da gustagarria,  
 Gustagarria kanpoak berdez agertzea,  
 Gustagarria erle zintzoen abaia bere,  
 Gustagarria labore onak ikustea,  
 Gustagarrien gustagarria, gustotan jaku,  
 Biotz orreri gure biotzok gustetia.

¡Ai! zeñ eder dan ostarku guttiz koloretsua!  
 ¡O! ze galanta bere soñekoz goiñ gorria!  
 Aiñ ikusgarri egun sentia bere izarraz,  
 Zoragarriak illargi eta eguzkia,  
 Zoragarritan zoragarrien zoragarria,  
 Gu zoratzeke aiñ biotz gozo aiñ guria.  
 Bioletagan dakutsut zure umilltasuna,

(1) Laketu=permitir.—(2) Malatsa=alegre.—(3) Apatza=afable.

Amodioa larrosa eder gorriagan,  
 Garbitasuna lirioan ta jireguzkian,<sup>1</sup>  
 Jaungoikoaren zaletasuna dala zugan;  
 Errekachoen ur garbi eta argitan barriz,  
 Zelan iturri bizia zure biotza dan.

Gogoratzen deust zedroak zure altasun ori,  
 Zarealako zeu Salomonen lolekua,  
 Urregorria badakust laster gomutetan jat,  
 Zelan zarean Jaunaren eche urrezkua;  
 Trumoiak dardar gaukazanean, diñot biguntzen,  
 Zure biotzak dabela gure Jaungoikua,

Ertzik bagako ichaso eta, zeru garbi ta,  
 Salbaziñoeko kucha bat zara segurua,  
 Bendiziño ta, emokai danen ibai ugari,  
 Jaungoikoaren ondasuntegi doatsua;  
 Zure biotzak zerren guztia beragaz daukan,  
 Zarealako Jesukristoren gurasua.

Triste bagagoz zu zara gure poztugarria,  
 Geiñotiaren osagarritzko zeu miritza,  
 Arnasa eta indargarria datorrenean,  
 Eriotzea guri kentzera bai bizitza;  
 Ta gero bere gure arimen jaubea zara,  
 Zerren daukazun zeruratuten beargintza.

Larra-choria,<sup>2</sup> egan doiala dakustanean,  
 Igoaz gora, esaten deusat: dontsua zu,  
 ¡Ai! banituke zure eguok zeruetara,  
 Bee onetatik egin dagidan gaur egatu,  
 Mariak daukan biotz gozoan neure abia,  
 Nai neukelako beti betiko aukeratu.

Zabalduridazuz ango atear, Ama lastana,  
 Entzuridazu gaur, biotz barruko nire deya,  
 Kendu eyozu arima oni egatu dayan,  
 Nai ta ezean geratzen daben lokarria;  
 Zergaitik zure semea naz ta, biotz orretan  
 Zeugandu naizu arren lastercho ¡o Maria!

FELIFE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion 1890-ko Mayatzean.

(1) Jireguzkia=girasol.—(2) Larra-choria=calandria.